

ECOPLASTIC

Ecoplastic gure proiektuaren izena da, **plastikoaren birziklapena** bultzatzean datza, gure ustez, plastikoaren birziklapen falta arazo larri bat bilakatu delako Durangon. Proiektu inobatzaile hau teknologia berriak erabilia jarriko da martxan, hau da, aplikazio digital baten bitartez aurrera eramango da ("Ecoplastic" du izena aplikazioak). Durangon kokaturiko kontainer guztietan kode bat egongo da ezarrita, honen helburua norbait plastikoa kontainerrean sartzerakoan kodea dagoen tapa zabaltzea eta bertatik herritarrak bere mobilarekin aplikazioaren bitartez kode hori eskaneatzea da. Gero eta plastiko gehiago birziklatuz, puntu gehiago irabaziko dituzte aplikazioan (taula bat egongo da non plastikozko produktu bakoitzeko zenbat puntu irabazten dituzun jartzen duenak). Puntuak lortzen joan bitartean aplikazioan pilatuta geratuko dira eta herritar Bakoitzaren puntuak arabera beherapen desberdinak izango dituzte Durangoko zerbitzu publikoetan. Adibidez: garraio publikoan, kiroldegian eta abar.

Batutako plastikoak, plastikoa erabiltzen duten enpresei salduko genizkion, adibidez, plastiko poltsak sortzen dituztenei, horrela, plastiko berria sortu beharrean, guk bildutakoa berrerabili dezakete.

